Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Mattin Galarza Ezkurdia

Larraun, Nafarroa (1940)



Aurkibidea

Biografia



1940ko irailaren 4ean Uitziko Txurdanea etxean jaioa. Bi gurasoak nekazariak: aita Uitzikoa eta ama Gorritikoa. Zortzi senidetan bosgarrena da eta bere sorterrian bizi izan da beti. Gaztetandik mendian lanean ibilia: lehendabizi Amasa eta Alkizan eta geroago Lleidan, Frantzian eta atzera Euskal Herrian, harik eta 34 urtetan Leitzan, fabrikan, enplegatu zen arte. Oso kirolzalea, lasterka-apustuak eta aizkora-apustuak egin izan ditu, baita irabazi ere bat baino gehiago.

Zintak

LRN-011

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendizabal Iturria, Agustin
- **Data**: 2019-08-09
- **Iraupena**: 76 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Lan ibilbidea: baserriko lanak, mendikoak eta lantegikoak

- **Erref**: LRN-011/002
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:02:58. **Bukatu**: 00:07:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Nafarroako lantegiak » Leitzaldeko lantegiak

Laburpena:
Soro asko zegoen eta lan handia. Hamabost-hamasei urterekin auzolanean aritzen zen mendiko lanetan. Hamasei-hamazazpi urtetan, Amasara joan zen lanera, eta handik Alkizara. 1959an Lleidara joan zen mendira lanera. 1960an eta 1973an Frantziara joan zen, mendian lan egitera. Otsondon eta Iratin ere aritu zen; gero Gipuzkoan. 1974an lantegian hasi zen.

2. Mendiko lanak, esku-zerrarekin, aizkorekin eta idiekin

- **Erref**: LRN-011/006
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:15:20. **Bukatu**: 00:17:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Mendian, esku-zerrarekin mozten zituzten zuhaitzak eta eskuz kargatzen zuten kamioia. Menditik karga-lekura mandoekin edo idiekin eramaten zituzten enborrak. 1970 inguruan hasi ziren traktoreak.

3. Aizkorarekin koska, zerrarekin moztu

- **Erref**: LRN-011/007
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:17:18. **Bukatu**: 00:20:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Aizkorarekin koska egiten zieten eta gero zerrarekin, trontzarekin, bi lagunen artean, mozten zuten. Hasierako makinek baino eskuz bizkorrago kargatzen zuten.

4. Artoaren eta babarrunaren lanak

- **Erref**: LRN-011/008
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:20:04. **Bukatu**: 00:20:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Soroetan lan asko izaten zuten. Artoaren eta banabarraren lanak esaten ditu.

5. Lasterka San Migelera

- **Erref**: LRN-011/009
- **Iraupena**: 0:04:17. **Hasi**: 00:20:53. **Bukatu**: 00:25:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Erronka jo eta Lekunberritik San Migelera igo zen, Markos Zabaloren errekorra gaindituz. 59 urte zituen. Gauez ilunpean ibiltzen ziren elkarrekin mendian, prestaketan.

6. Lekunberriko bestetan aizkoran

- **Erref**: LRN-011/010
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:25:10. **Bukatu**: 00:26:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Markos Zabalo aizkoran aritzen zen. Bestetan Mattin ere aritzen zen aizkoran. Lekunberrin aritu zirenekoa kontatzen du.

7. Arroizko "Txikito" lasterkaria

- **Erref**: LRN-011/011
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:26:50. **Bukatu**: 00:28:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:
Arroizko "Txikito" lasterkari ikaragarria zela dio. Apustuetan aritzen zen.

8. Garia eultzitzen larrainean

- **Erref**: LRN-011/013
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:31:45. **Bukatu**: 00:34:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Eultzitu egiten zuten larrainean garia. Artazia izeneko tresnarekin pasatzen zuten garia, idiek lagunduta. Biradera batekin zebilen makinan pasatzen zuten gero alea, garbitzeko. Herri osoan larrain bakarra zen beraien etxekoa eta hainbat etxetakoak joaten ziren bertara.

9. Arbia behientzat, lizar hostoa ardientzat

- **Erref**: LRN-011/014
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:34:32. **Bukatu**: 00:36:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Artoa jorratzerakoan, arbia ereiten zuten eta neguan ateratzen zen. Behiei

emateko izaten zen. Ardientzat lizar hostoak lehortu eta neguan ematen zizkieten.

10. Zurikina eta arto-lastoa behientzat

- **Erref**: LRN-011/016
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:37:07. **Bukatu**: 00:39:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Artoa eskuz zuritzen zuten, taldeka. Zurikina behiei ematen zieten eta arto-lastoa ere bai. Etxerik etxe ibiltzen ziren elkarri laguntzen.

11. Olaetxea, batetik bestera ibiltzen zen saltzailea

- **Erref**: LRN-011/017
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:39:47. **Bukatu**: 00:43:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Kantuz ibiltzen ziren arto-zuriketan. Alorrak gutxiago jarri eta abereak gehitu zituzten, bera gazte zela. Manoli Olaetxearen aitari buruz hitz egiten du; batetik bestera aritzen zen saltzailea zela dio.

12. Mojak maistra eta erizain

- **Erref**: LRN-011/019
- **Iraupena**: 0:04:02. **Hasi**: 00:44:44. **Bukatu**: 00:48:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Eskolan dena erdaraz egiten zen. Apaiza euskalduna zen. Kontatzen du mojek mesede asko egin zutela herrian. Mojei egurra txikitzera joaten ziren.

13. Lagunartean beti euskaraz

- **Erref**: LRN-011/021
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:50:46. **Bukatu**: 00:51:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gurasoek bazekiten erdaraz. Lagunartean beti euskaraz egiten zuten.

14. Iralekuak eta metak

- **Erref**: LRN-011/023
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:52:07. **Bukatu**: 00:54:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Udazkenean iratzezko metak egiten zituzten, berrogei inguru. Behar zenean, gurdiarekin bila joaten ziren. Azpigarritarako onena dela dio. Iratzearen sinonimoak esaten ditu. Iralekuak gertu izaten zituzten.

15. Ihauteetan puska eske, San Juanetan ospakizunak

- **Erref**: LRN-011/024
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:54:54. **Bukatu**: 00:57:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:
Ihauteetan hiru-lau egunez aritzen ziren eskean, puska biltzen, etxez etxe soinuarekin. Janaria ematen zieten. Bere aurrekoek oiloa lapurtzen zuten. San Juan bezperan afaria eta egunean dantzaldia izaten zuten. Letxuga lapurtzen aritzen ziren ordurako. Igandetan dantzaldia egiten zuten.

16. Festatan pilota partidak, txistua eta akordeoia

- **Erref**: LRN-011/025
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:57:31. **Bukatu**: 01:00:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Bere gazte garaian ez zen bertsolari asko izaten. Festatan pilota partidak izaten ziren. Txistua jotzen zuten frontoian eta akordeoia ere bai. Herriko musikariak izendatzen ditu.

17. Feria Lekunberrin, Irurtzunen eta Tolosan

- **Erref**: LRN-011/033
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 01:05:53. **Bukatu**: 01:08:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Feriara behiak eta ardiak eramaten zituzten. Irurtzunen txerri-feria handia izaten zen, asteartero. Tolosako plaza zaharrean ere feria handia egiten zen.

18. Bularretak elurretarako

- **Erref**: LRN-011/035
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 01:11:15. **Bukatu**: 01:13:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Bularretak erabiltzen zituzten elurretarako. Egurrezko tresnak izaten ziren, oinetan jartzen zituztenak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-01

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com